

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ricardo Duñabeitia Gandarias

*Muxika,
Bizkaia
(1929-2024)*

Aurkibidea



Biografia



1929ko apirilaren 3an jaio zen Ibarruriko (gaur egun Muxika) Berroja auzoko Arandia baserrian, eta ordudanik bertan bizi da. 1950ean soldadutza egitera Ceutara joan zen 15 hilabetez eta orduan baino ez da egon kanpoan. Bere aita bertakoa zen eta ama Mauma auzoko Goikoetxe baserrikoa. Lau neba-arrebatatik bera da gazteena. Gerra garaiko kontu ugari kontatu ditu grabazio honetan. Elkarrizketatzailea bere senitartekoa da.

Zintak

MUX-007

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2009-11-11
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Ajuriako eskola

- **Erref:** MUX-007/006
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:03:59. **Bukatu:** 00:06:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Lau neba-arrebatatik gazteena da. Ajuriako eskolara joan ziren; inguru ume guztiak joaten ziren bertara oinez. Neskak eta mutilak elkarrekin ibili ziren eskolara maistra bategaz, gaztelaniaz jaso zituzten eskola guztiak. Eskolan ezkaratz bat zegoen maistrarentzako.</p>

Transkripzioa

- Zuek izen ziñien lau neba-arreba.
- Bai.
- Zu zematgarrena izen zara?
- Ni gaztiena

-Zu gaztiena. Eta hemen zuek eskolara joan ziñien umetan?

- Bai eskolara Aixuxera (Ajuriara).

- Aixuxeko eskolara Joan ziñien.

- Bai.

- Berton, danok joaten ziñien hamendik Aixuxera edo... Nungo umiek batzen ziñien Aixuxen?

- Honetakuek danak, honetakuek Aixuxera joaten zien, danak.

- Ta oiñez?

- Ai, ze ba? Oin pentseten dozu kotxien halan ta astoaz ala? Oiñez, oiñez, eta txokolatie eta ogidxe karteran eberdidxen jateko, ta gero bidxen bittartien ba han olgetan-ta, holakoxe geuzak.

- Ta Aixuxen ze egoten ziñien neskak eta mutillek danak batera?

- Han danak batera egoten zien.

- Danok alkarregaz.

- Danak batera.

- Eta eskolie nok emoten otsuen edo...

- Orduen zerak be bai, maistriek. Han maisurik eta holakorik ez zan egon, maistrie egoten zan.

- Danontzako maistra bat.

- Bat, bat egoten zan.

- Ta zein zan akordetan zara? Izena-edo?

- Bai zera! Beran zerak eitten, orduen eskuseurik be ez zan egon ta, zera unikamente lapiko bat egosteko koziñie, txapie-ta, ta ha hara erretireten zan. Gero kanpoan be egon zien baia harek kanpoan barik barruen.

- Ta eskolie nun emoten zenduen Aixuxen?

- Ba untxe dauen lekuen. Betiko lekuen, hantxe, hantxe bertan.

- Eta hori maistriori nungoa zan? Kastellanie zan edo euskeldune? Euskeldune zan edo erdeldune?

- Orduen ha erdaldune zan bera, erdeldune zan; euskeraz ez dot pensetan ekizenik be.

- Orduen eskolan erderaz ikesi zenduen?

- Horixe bai. Ta eurreko alderdixen Franco, ha zera kuadrue ta azpiko alderdidxen kurtzie dala ta ez daitz zer eukitzen ban; baia Franco eukitten bana bai. Ta “Cara al sol” kanteten gendun kanpora urtenda, banderie zertunde. Ta gero bajatukeran be “Cara al sol” bajatukeran be. Horren danak. Jesus!

2. Eskola garaiko olgetak

- **Erref:** MUX-007/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:08:20. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Zertara olgetan zuten azaltzen du: intxaurrekin, txopinke, arineketan... Neskak eta mutilak elkarrekin jolasten ziren. Tabaka neskak baino ez ziren aritzen.

Transkripzioa

- Zetan olgetan zenduen? Gogoratzen zara? Akorduen dekozu?

- Ba hamen danak. Intxaurren sasoie zanian zerien, ipiñi intxaurrek ta bat erdidxen ta ha erdikoa ataten bazendun, dnak intxaurrek guztidxe noberantzako. Horrek bai. Txopinke ta zerien ariñeketan eta horrek,

holakoxiek.

- Zelan esan dozu?

- Txopinke! Txopinke esaten dxakon, bata bestieri ikutu eta ariñeketan haixe harrapetan-ta, ba holakoxiek, holakoxe geuzak eitten zien. Bai.

- Eta neskak eta mutillek danok batera?

- Bai, bai, bai, han danak batera ibiltzen zien; han ez zeuen problemarik, neskak eta mutillek danak batera.

- Orduen intxurrekaz, txopinke...

- Danak.

- Zer gehidxau ibiltzen ziñien? Holan beste jokorik, tabakaz-eta ez ziñien ibiltzen?

- Bai, tabaka be ibiltzen zien, baia gu mutillok ez e! neskak ibiltzen zien, ipiñi zerak eta... Baia tabak eukitzeko lehelengo artxoa nunundik zuzendu bi(her) zen, artxoa. Ha artxoa jan eta gero beste batek emonikue badan harek tabak, harexek, danataixik. Holakoxe geuzak.

- Taban jokue zelakoa izeten zan, bakizu?

- Hori neskak ibiltzen zien eta hori ikusi bai baia zerak zelako jugadie eitte ben ezin, hori ezin nittuen esplikeu ta, danataixik.

3. Dotrina eta lehen jaunartzea

- **Erref:** MUX-007/009

- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:10:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Dotrina abadeak erakusten zuen. Berak Muruetako Orbegaz ikasi zuen.

Frontea azaldu baino astebete lehenago egin zuen lehenengo jaunartzea.</p>

Transkripzioa

- Eskolan erderaz ikesi zendun haregaz maistriegaz. Eta dotriñe?

- Dotriñe zerak emoten ban, abadiak emoten ban dotriñe.

- Ta nor zan abadie han sasoien?

- Orduen denporan, bueno... Orduen ez daitz ba, nor egongo zan Orbe.

- Orbe?

- Bai, horixe zera, zerekue, Moruetakoa egon zan orduen.

- Amorebietakoa?

- Moruetakoa.

- A, Muruetakoa!

- Bai, haixe egon zan.

- Eta zu zemat urtegaz hasi ziñen eskolan. Gerra eurretik?

- Gerra eurretik, horixe bai. Gerra eurretik hasi nitzen ni ze primera komunio in nauen eurreko, hamen frentiek etorri zienien, eurreko zortzi egun-edo ariñau ta! Nik esaten in naben primera komunio in eta hil in bihar izaten nixoa ta, esaten in naben! Zortzi bai, horretaxik.

4. Etxetik irten beharra

- **Erref:** MUX-007/013

- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:10:40. **Bukatu:** 00:14:16

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Frontea etorri zenean, amagaz batera, bera eta auzoko batzuk Ariatzarantz bajatu ziren eta handik Okara joan ziren, Okako Arandian; Muxikarako bidea zarratuta zegoen. 8 bat egun egin zituzten bertan. Etxetik derrigorrean egin behar izan zuten alde; auzoko beste askok ere alde egin behar izan zuten. Etxera bueltatzerakoan, mantak eta balak baino ez zituzten aurkitu; ez zegoen ezer. gero auzoko beste etxe batean ere egon ziren.

Transkripzioa

- Ta frentie nun egon zan hamen ba?

- Hortik etorri zien eta gu kanpora atar genduzan. Hortik ziher joan giñen Aritzara. Aritzara, Aritza jun horrek be bai zerera, baia horrek hartu eben Muxikerantza ta g u joan giñen, ama difuntie ta bixok, ta hamengoak Joxepan amagiñarreba ta gizona, lñaxio difuntue ta beste bat be bai anaixie, Anizeto, harek gu etor giñen zerera, Okara. Guri zarratu ein oskuen, horrek paseu zien, ta horrek gu Okara aginddu oskuen Muxike hartu ebenien, ta horrek justo basorantza. Haixe. Gero Okan egon giñen Arandianien egon giñen, han ein gendun guk, igual zortzi egun eiñ . Behi bi guk, behi bi euki genduzen, ta behidxeekin gero hona sartu zienien, behidxeekin etorri giñen hona, ta istoridxe itzela. Gero hamen egon giñen. Etzien hamen ez eben ein ezer, manta zahar batzuk ta balak baiño ez zeuen hamen besterik, ezer ez zeuen. Txakurre ikusten ei zen hor goiko bentanan ta txakurrik be ez zeuen, txakurre hil edo zozer eingo ben. Danataixik. Gero honantza etorri giñen baiña dana zeuen, danak zertute euezan hamen.

- Orduen etzera sartu jatzuezan.

- Etzetik atara ein genduezan gu. Zerak asturianuek -edo, hortik Urrutxutik bezperan etor zien hona ta hamen harrapetan ben konejue, ollue ta danak ta zerien. Gure ama, ama difuntie, hamen zerak emoten, esnie ta zerak emoten, ta benga bidxamonien: "Benga kanpora!, kanpora urten gure ez bazue afusilleu ta...", ta behidxok-eta solte biezan hor kortan, hortik ziher zerera Aritzara gu paseu giñen. Ta historiala haidxe.

- Ta Aritzaran nun egon ziñien ba?

- Aritzaran egon paseu ein giñen, guk Aritzara urten ein gendun. Gero Aritzatik Okara paseu genduzan gu, ta horrek gero Muxikera jun zien, bota bezan ta horrek be paseu zien Muxiken ha zarratu, ta gu baiño ariñau zertu zien horrek kontizu, eta zerien eta gu Okara. Haidxe, haidxe historiala.

- Ta Okan etzeren baten-edo egon ziñien?

- Bai, Arandianien egon giñen. Arandianien han egon giñen gu; gu ez bakarrik, Aixuxe (Ajuria) aldeko zerak be bai Isidro ta horrek Patxiko eta horrek... Zuk e... horrek danak hara juenda billurregaz hamendik, Aixuxetik hara Okara junda egon zien.

- Ta zu zure amagaz bakarrik?

- Ama ta honek auzokoak be bai. Lehen esan otsutana, Xixili ta Benanzio difuntue ta Anizeto difuntue eta horrek danok gu gu alkarregaz egon giñen Okan. Mobidie dana, pasilloatan-ta koltxoiek botata-eta, guk egunek ein genduzen Okan be.

- Orduen asturianuek egon ziren hemen?

- Asturianuek egon hamen, asturianuek atara ei bezan hamendik zerera, hora Bizkergi aldera edo horra atara ebezan . Hemen gero reketiek sartu zienien, hamengo tio difuntue etor jakun guri, Gizitzakoa, hona etor diela

eta oin pase in iziela gora eta gu atzera etorri ein giñen hona gora, bai. Gero hor auzo auzoan, auzokoak ez zebiezan erun danak, harek ez zebezan atara, ta harekin egon giñen gu ostabe, han panteute. Hori historiala.

5. Erreketeen meza; auzoko etxe batean luzaro

- **Erref:** MUX-007/015
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:14:25. **Bukatu:** 00:16:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:

Domeketan auzoko atarte batean meza ematen zuten erreketee; beraiek zuten beraien kapilaua. Auzo bereko Agarrebekoan egon ziren luzaro bera eta ama etxean ez zuten ezer.

Transkripzioa

- Hemen zerak-ta, reketiek egon zien eta hor mezie-ta entzuten genduzen domeketan-ta.
- Nun?
- Hametxe, zerien, Joxepan zerien etartien.
- Joxepan etartien...
- Mezie emote ben, kapillaue egon zan hor, erreketiegaz e, ta mezie ta horrexek entzuten genduzen guk.
- Ta reketiek emoten bien mezie?
- Bai. Reketiek emote ben, eurek kapillaueu eukien ta.
- A, euren kapellana.
- Bai.
- Ta eurek nun egon zien, etzeren baten egon zien?
- Hor ez daitz zelan manejetan zien, nun egoten zien edo behintzet domeketan edo zeretana mezie emoten ban hor kapillauek. Bai, horidhek zerak.
- Ta zuek zelako relaziñoa euki zenduen bertokoak reketiekaz?
- Guk relaziñoa ze euko gendun ba guk? gu ba isilik ta zerien. Beste, beste zerik ez gendun eukitzen guk. Guk han beherengo etzien hantxe, zuk ez zenduzen ezetuko, Gaizka bai zuk, Gaizka horkoa ezetuko zendun ba, Gaizka hildde dau baia, Agarrebehekua esate jakona,
- Agarrebehekua bai, baia Gaizka hori ez.
- Gaizka ez zendun ezetzen?
- Ez, ez naz akordetan.
- Karmelo bez? Lourdes bez? Harek hiru neba-arreba zien ta.
- Ba ez daitz, ez daitz.
- Haurek, harexek. Ba han egon giñen gu luzeroan be gero.
- Agarrebehekon?
- Bai Agarrebehekoan egon giñen gu. Hemen ezer ez euen ta.
- Baiña zer dala ta egon ziñien han ba?
- Ba han ba, hamen ezer ez euen ta han ba jaten-ta, ta zerien-eta, hantxe egoten giñen gu.
- Seirok han?
- Ze seirok, seirok. Harek bestiek zera-ta euren etxien planteu zien Joxepa-ta, Joxepan zera eta Xixili difuntue eta Joxepan amagiñarreba eta harek.

Harek beste anaidxe bidxek, harek hara zertu zien baiña gu hara junda egon giñen.

- Zu ta ama bakarrik.

- Bai. Ta eurek? Eurek euezan zera ta tia difuntie ta Bittor difuntue ta harek, ta zerakin, gu han egon giñen. Bai historiala bakogu hor. Hortik Okatik etor giñen zerera, hortik Okolo azpittik hona arte etorri giñen.

6. Gorriak Askarin

- **Erref:** MUX-007/016
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:16:38. **Bukatu:** 00:18:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Okatik gora, beraien auzora igotzerakoan, Askari menditik tiroak jasotzen zituzten; gorriak zeuden bertan. Gauetan Ajuriarantz erasotzen zuten, beraien balkoitik ikusten zuten. Askaritik Oka bajatu eta Bizkargira igotzen ziren; erasoaldia gauez izaten zen. Ajuriako eliza gorpuz beteta dagoela zioten lehengoek. Egunez abioak ere ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Baiña Askaritik orduen be tiroak botaten oskuezan guri, ze han gorridxek euezan han Askarin. Ta harek tiroak botaten ebezan, ze behidxen adarrak guk bat ta amantalak ta ama difuntie amantala botata-ta ikusi ez dizen baiña harek, han ezeunek egongo zien. Ostantzien gu hilko genduezan ze harek bazkidxen gu handik gatozela ta, gu behi bi ta gu ba sei lagun, e bost: harek hiru ta gu ama difuntie ta ni bi, bost etorri giñen.

- Orduen Askarin egon zien gorridxek.

- Askarin gorridxek egon zien.

- Ta asturianuek berton?

- Ez, orduen hemen reketiek euezan. Reketiek euezan hamen baiña han gorridxek. Handik, handik gabetan urteten ben zerera hona, fuego eitten ben Aixuxerantza (Ajuriarantza), hor bazterrok, gabetan guk hametik balkoatik ikusten genduzen, hor urrera ataten bien zera, sue ataten ben. Ostabe gabaz urteten ben hona gora Okatik, ta ostabe bidxamonien han goittik behera Bizkargirantza atate ben.

- Nundik goittik behera esan dozu?

- Okatik, Askarittik behera, Okara behera, ta handik ganera gora urtete ben ostabe defenditako ostabe, ta gabetan kontratakie emoten (zo)tsien, hor Askarittik emote (zo)tsien. Hor esaten eben elizie be beteta dauela hilekin, esaten eben hor.

- A bai? Nungo elizie?

- Aixuxekoa (Ajuriakoa). Hor fuego ataten ben gabetan; gabetan urteten ben handik Okatik gora, ta Aixuxen bestiek defendidu eitten zien mendidxen ta ha mendidxe eukikieran bestiek fuego eitten ben, gorridxek. Bai, hor luzero ibil zien.

- Luzero?

- Bai. Hor denporie ein ben. Abioiekin etorte zien ta abioiekin zertzen biezan harek, abioiek bai.

7. Etxeko balkoitik eraso askoren lekuko; Lemoatxako erasoak

- **Erref:** MUX-007/018
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:18:57. **Bukatu:** 00:19:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Askariko zein Bizkargiko erasoez gain, Lemoatxako erasoak ere ikusten zituzten etxeko balkoitik. Lagun asko hil ziren bertan.</p>

Transkripzioa

- Eta esan dozu Askaritik Okara bajatzen ziela eta gero Bizkergire.
- Bai defenditako hara altxeten ben ostabe harek. Baia ostabe gabetan zertzen zien, ta ostabe gabetan jote eben harek kontratakie. Aixuxen (Ajurian) hor hor leuetan, hor gabaz ataten eben egur hotsa ataten eben. Hor eta zerien be bai guk, hamen Lemoatxien be bai; Lemoatxekoak be guk edarto ikusten genduzen ama difuntiek eta bixok gabetan hortik balkoatik. Lemoatxien be bueno gabetan! Bua! Ataraten ben...
- Lemoatxe esan dozu?
- Bai. Lemoatxekoa. Hamendik ondo ikusten zan, oin piñuegaz-eta tapeta egongo da. Lemoatxe bakizu nun dauen?
- Ez, ez daitz nun dauen.
- Ba Lemoatxe, Lemoan goiko alderdittik.
- A Lemoa herrixen, bale bale.
- Ba handixik.
- Pentseu dot lekuren bat dala Askari ta honek...
- Han be lagunetan hil bi(her) zen ban. Lagunetan Jesus! Kantidadiek hil bi(her) zeban han be.

8. Auzoan fusilatutakoak

- **Erref:** MUX-007/019
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:19:56. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gerra garaian, auzoan bertan ere hil zuten jendea: "kamiñero" bat eta bere osabaren anaia bat aipatzen ditu;; horietako bat non fusilatu zuten ere azaltzen du.

Transkripzioa

- Hemen bertoko jentie-edo hil bien? Esan dozu hor Askarin egoten ziela ta tiroka...
- Bai. Hemen bertokuek be hil biezan. Horrek zeren-ta aitte ta be hil ben zerak gorridxek hil ben, zerak honek zerena ta, Begoña, Begoña maistrie-ta?
- Bai.
- Bai, Solaegiña. Horren aitte be zerien dauela hil ben, zerien kantellan

ezkuteute. Bai ha zera zan, kamiñerue zan ha. Ta ha txapel gorridxegaz ibiltzen zien orduen kamiñeruek kontizu, ta ha be hil ben.

- Gorridxek hil bien?

- Bai, gorridxek, gorridxek hil ben ha, bai gorridxek. Ta beste bat hamengo zera be bai, ha Posuaundin egon zegaz, hamengo lzebalkoa zana, honen zeren-ta, Juan Kruzen-ta, Juan Kruz difuntuen-ta aitten anaidxie.

- Juan Kruz, zuen lehengusue?

- Bai, Gizitzakuena! Ta haren aitten anaidxie, ha be zerien zertute, ez daitz ba, olloak harrapetan-edo zerien ta, ha aittek be badaki hori! Han landien beheko alderdire eruen hara, kamiñoan hegaleko zerera, ta han han zertu ben hil ben.

- Fusileu ben.

- Bai. Gorridxek e, gorridxek!

- Nungo kamiñoko beheko aldetik?

- Han, han harek sagarrak badauz ba? Posuaundiko zerien, Goikoerota partetik goiko ganeko alderdidxen sagarrak-eta?

- Bai.

- Han mailak egon zien, oin ya ez dau mailarik eta baia mailak egon zien eta han han aldien nunun hil ben seguru.

- Posuaunditik...

- Bajatu hara ta han. Horrek aittek badakiz!

- Neure etze ondoan orduen?

- Bai, zuek etze ondoan. Behintzet handik goittik behera bajatu beheraiño ta...

9. Tifusa zela-eta berrogeialdian

- **Erref:** MUX-007/021
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Bere anaiak eta beste auzoko batzuk Sopuertaraino joan ziren. Handik tifusarekin etorri ziren; ondorioz, berrogeialdian egon behar izan zuten. Berrogei egunez ura edaten egon ziren. Nola pasatu zuten kontatzen du.

10. Anaiak Sopuertara joan ziren; zilarrezko ogerlekoak

- **Erref:** MUX-007/023
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:26:40. **Bukatu:** 00:28:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Zortzi urte zituen tifusaz gaixotu zenean. Maumako osaba bat zutenez Sopuertan, anaia biak hara joan ziren. Sopuertan ere gerra zegoen. Arreba, bitarte horretan, Mauman egon zen. Zilarrezko ogerlekoa erabiltzen zen orduan. Lapiko batean sartu, eta sats artean gordetzen zuten dirua.

11. Dirua sats artean gordeta

- **Erref:** MUX-007/025
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Bere amaren etxean, zilarrezko ogerlekoak lapiko batean sartu eta sats artean gordetzen zituzten, dirua inork ez aurkitzeko. Lotan zeudela, burko azpian gordetzen zituela gogoratzen du, bizirik jarraituz gero, zerbait izan zezan.

12. Trintxerak gertu, baina auzoko inor ez frontean

- **Erref:** MUX-007/027
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:31:08. **Bukatu:** 00:32:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Beraien etxe ondoan trintxerak egin zituzten Mendataranzko aldean. Auzoko inori ez zitzaion egokitu gerrara joan behar izatea.</p>

13. Ogi beltza gerra sasoian

- **Erref:** MUX-007/028
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:32:47. **Bukatu:** 00:34:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerra sasoian ogi beltza jaten zuten, zahiaz egindakoa. Garirik eta, erein ez zenez, krisi itzela egon zen. Aurrera zetorrena jaten zen. Geroago, ereiten hasi zirenean apur bat hobetu zen bizimodua.

14. Eskola itxita, partikularretara

- **Erref:** MUX-007/029
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:34:34. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Ajuriako eskola itxi zen garaian, Francoren irudia egoten zen eskolako horman

eta Cara al Sol kantatzen zuten sartzean eta irteteen. Orduan, arratsaldeetan klase partikularretara hasi ziren Okara; oiloak alde batean eta eurak bestean.

15. Letxugak erretzeko, txiza onena

- **Erref:** MUX-007/030
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:36:00. **Bukatu:** 00:38:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Ume bihurriak ziren bera eta lehengusu bat; behin, biak zigortuta zeuden, eta oiloen pertxatik egin zuten alde. Beti leporatzen zieten errua. Letxuga-landareei txiza egin eta erre ere egin dituzte.

16. Domeketan erromeria

- **Erref:** MUX-007/032
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:39:21. **Bukatu:** 00:40:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Domeka arratsaldeetan egiten zen erromeria aurreko auzoan, Agarren (Agirren), neska eta mutil batzen ziren.

17. Etxebizitza gutxiago orain

- **Erref:** MUX-007/035
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:42:34. **Bukatu:** 00:44:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Lehen hamasei bizimodu (etxebizitza) zeuden. Bota dituzte etxe batzuk: Torre Aurrekoa eta Torre atzekoa Izebalen.

18. Errotak prezintatu

- **Erref:** MUX-007/036
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:44:03. **Bukatu:** 00:45:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Inguruan lau errota egon ziren. Eurak Okara eta Iberlatxura joaten ziren. Prezintatu egin zituzten errota, eta gauez ibiltzen zen baten bat.

19. Garia Durangoko errotetara, artoa Okara

- **Erref:** MUX-007/038
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:45:57. **Bukatu:** 00:47:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Durangoko errotetara, Tabirara eta Lapikora, eramaten zuten garia, eta irina ekarri. Lehenago astoan, bakoitzak bi asto eramaten zituen; geroago kamioian.

20. Labeko sua

- **Erref:** MUX-007/039
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:47:30. **Bukatu:** 00:48:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Larunbatetan labeko sua egiten zen etxe guztietan, bakoitzak berea. Aste guztirako ogia egiten zen orduan. Okina heldu zenean amaitu ziren kontu horiek.

21. Pospolinak eta erbiak

- **Erref:** MUX-007/040
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:48:29. **Bukatu:** 00:51:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

<p>Lehen kakalardorik ez zen egoten. Garia ereiten zen garaian, pospolinak ibiltzen ziren. Gerraostean erbiak ugaritu ziren. Ehiztariek hiruzpalau harrapatzen zituzten; inoiz baten bat kortan sartu ere bai. Gurdiak zapaldu zuen behin bat. Orain orkatzak dabilta.</p>

22. Katamixarra, igela eta apoa

- **Erref:** MUX-007/042
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:52:00. **Bukatu:** 00:53:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

Mixarra (katamixarra) lehenengo aldiz ikusi zuenean, erabat harritu zen. Lehen ugaraxoek (igelek) asko kantatzen zuten; orain ez. Apoari zotza sartu eta eskegita uzten zen; haren txistua txarra zela uste zuten.

23. Beltzik urtebete edo bi

- **Erref:** MUX-007/044
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:54:15. **Bukatu:** 00:55:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Baten bat hilez gero, beltzik jantzi beharra zegoen; urtebete edo bi. Tindatu egiten ziren arropak; Gernikan bazegoen tindategi bat.

24. Jai egunetan elizara

- **Erref:** MUX-007/045
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:55:11. **Bukatu:** 00:55:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Derrigorrez joaten ziren jai egunetan elizara; ez oraingo moduan. Orain parranda egin eta gero lo.

25. Ordu erdi belauniko

- **Erref:** MUX-007/046
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:55:55. **Bukatu:** 00:56:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Aste Santuan Ibarrurira joaten ziren elizara, ordu erdi belauniko egoten, penitentzia egiten. Orduan debeku gehiago zegoen, paparra ere ezin zen erakutsi oraingo moduan.

26. Dena zen pekatu

- **Erref:** MUX-007/047
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:56:42. **Bukatu:** 00:58:29

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Ibarrurin hiru abade egoten ziren. Apaizetako batek esaten zuen emakumeek buruan "falta de riego" zutela. Aitortzen ere denbora gehiago ematen zuten emakumeekin, eta galdera itzelak egiten zizkieten. Jauna hartzeko baraurik egon behar zenez, kontuz ibili behar zen aurpegia garbitzean.

27. Gaubeila, eta jatordua hiletaren egunean

- **Erref:** MUX-007/049
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:59:00. **Bukatu:** 01:01:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Hil-kanpaiak ezberdinak ziren hil zena gizonezkoa edo emakumezkoa izan. Gaubeila egiten zen hildakoaren etxean. Auzoan bertan egin ziren hileta batzuk, baina orain Ibarrurin denak. Andariek eramaten zuten hilotza Ibarruriko elizara. Joandakoek, apaizekin eta andariekin batera, bazkaria izaten zuten.

28. Primerako eta segundako hiletak

- **Erref:** MUX-007/050
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:01:17. **Bukatu:** 01:03:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Primerako hiletan, kandela gehiago jartzen zen aldarean. Dirua zutenek, ugazabek, primerako hileta izaten zuten. errentan zeudenek segundakoa. Alberto apaizak kendu zituen hiletan inguruko jatordua.

29. Ganadua metrailatu

- **Erref:** MUX-007/051
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:03:23. **Bukatu:** 01:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Zortzi urte zituela izan zen Gernikako bonbardaketa. Lanean zegoen ganadua metrailatu zuten. Eguerdi inguruan, paper erreak eta, ekarri zituen haizeak. Arbazegin ere bonbaren bat bota zuten.

30. Esan beharrekoak neurtu egin behar

- **Erref:** MUX-007/052
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:05:20. **Bukatu:** 01:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Ez du gogoan bonbardatu ondoren ikusitako Gernika. Gero ere, erreketeeek gorriek erre zutela esaten zuten. Auzoko batek erreketeeek erre zutela esan zuenez, soldaduen kapilauak familiari semea babesteko esan zien.

31. Larrinagatik etxera tuberkulosiarekin

- **Erref:** MUX-007/057
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:10:41. **Bukatu:** 01:12:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Osaba Anastasio eta Hilario Larrinagako espetxera eraman zituzten preso gerra garaian. Gaixotu egin ziren bertan, tuberkulosiarekin, eta etxera bidali zituzten. Baserrian, gaixorik, etxeko guztiekin batera egon ziren, besteak kutsatzeko arriskuarekin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com